

KZGUNEKO IKASTAROAK

Dei honen bidez jakinarazten dizuet Larraulgo Kzgunean “Ikaserraz” izeneko ikastaro berriak antolatzeko aukera dagoela.

“Ikaserraz” izeneko ikastaroak diseinu bera duten, nabigatzeko erratzak diren eta bi orduko iraupena duten mintegiak dira. Horiei esker, Interneteko aplikaziorik ezagunenetako batzuk erabiltzen ikasiko da: Facebook, Youtube, Google maps, eta abar. Ikastaro guztien zerrenda Udalean dago.

Mintegi hauek begiralearen bisita egunetan programatu daitezke.

Beraz, ikastaroen zerrenda begiratu eta apuntatu nahi duzuenok eman izena eta egoki datorkizun ordutegia Udaletxean.

Zuen zai geratzen gara. Agur bat.

Larraulen, 2009ko urriaren 27an.

Alkateak